

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa, 7. liburukiaren aurkezpena Bilbon, Zabalgunean, 2016ko maiatzaren 3an

Eusko Jaurlaritzaren izenean, lehenik eta behin, nire poza agertu nahi dut gaur hemen, euskararen Herri Hizkeren Atlasaren 7. liburukia aurkezten dugulako, "Euskara Ibiltaria" erakusketarekin batera.

Azpimarratu eta eskertu egin nahi dut, herri-hizkeren ondarea biltzeko, ikertzeko eta ezagutzera emateko Euskaltzaindia egiten ari den lana. Bilketa eta ikerketa herritarren esku jartzea, lan bikaina da, zoriondu beharrekoa; herritarren esku jartzea, argitalpenen eskutik, internet bidez eta erakusketarekin.

Hain zuzen ere euskararen herri-hizkeren atlas honek, aukera paregabea ematen digu euskararen hitzunen mintzamolde desberdinetan murgiltzeko eta sakontzeko.

Gure helburua da, euskara, bizia, gero eta erabiliagoa, hitzunen premia komunikatiboetarako gero eta tresna baliagarriagoa izatea. Ezin hobeto adierazi zuten Axular eta Mitxelena handiek, euskara, erabilia izatearen eta erabilia izateko tresna baliagarria izatearen errezeta: "dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen", esanez azpimarratu zuen erabilera Axularrek, eta Mitxelenak "elkarrekin mintzatzeko tresna **zorrotza**" izatearen balioa nabarmendu zuen. Bide horretan funtsezkoa da euskararen herri hizkeren altxorra ondo jasoa eta zabaldua izatea.

Euskaltzaindiaren obretan obra nagusia, zalantzarik gabe, euskara batuaren eraikuntza eta garapena gauzatzeko gidaritza izan da. Euskara baturik gabe ez zen gertatuko euskarak azken hiru hamarraldietan izan duen aurrerapen ikaragarria.

Izan da, euskara batua eta herri euskara kontrajarri nahi izan dituenik. Ikuspuntu okerra da hori. Kontua ez baita euskara batua **ala** euskalkiak/herri hizkerak, baizik eta euskara batua **eta** euskalkiak/herri hizkerak. Dena baita euskara; bakoitza, dagokionerako.

Tokia egin behar diogu euskarari, ez bakarrik hezkuntzan, unibertsitatean, administrazioan edo hedabideetan; horietan ez ezik, baita gure bizipen kuttunenetan ere, eremu ez formaletan ere. Horretarako euskara bizia behar dugu, adierazgarritasun handikoa, txispaz betea, eta horretarako iturri paregabeak dira herri hizkerak. Baina oker ibiliko ginateke hori euskara batuari kontrajarriko bagenio, euskara batua berez eta nahitaez lehorra eta, aldiz, herri hizkera nahitaez txispaduna balira bezala.

Euskara batuak euskal hitzunen komunitatea sendotu du, euskalki bateko eta besteetako hitzunen arteko komunikazioa erraztu du, euskara gizarte modernoaren beharretara egokitu du. Ez da munduan hizkuntza normalizatu eta indartsurik, estandarra ez duenik.

Uste dut aukera aproposa dugula gaurkoa, argi eta garbi adierazteko euskara batua eta herri euskara ez direla errealitate kontrajarriak, txanpon beraren alde biak baizik. Euskara batuak beharra du herri hizkerarena. Eta euskarak, hizkuntza bizia eta normalizatua izango bada, beharra du euskara batuarena.

Beraz, zorionak Euskaltzaindiari eta Atlasaren lantalde osoari. Pozik gaude elkarren arteko lankidetzaz. Euskararen herri-hizkeren atlasaren proiektuan, 1983-1984an abian jarri zen momentutik, Euskaltzaindiak ondoan izan gaitu Jaurlaritza eta herri-aginteak. Herri-hizkerei eusteko ahaleginak merezi duelako. Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana garrantzitsua da, eta elkarlan horretarako programa-kontratua berri berriak gara, 2015etik 2018ra arte, tartean Atlasaren proiektua. Aurten 1.250.000 euroko ekarpena egingo du Jaurlaritzak. Eta pozik gaude, hori ez delako gastua, inbertsio publikoa baizik. Horregatik izan duzue eta izango duzue Jaurlaritza ondoan.

Patxi Baztarrika Galparsoro

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Presentación del 7º tomo de Euskararen Herri Hizkeren Atlasa Bilbao, Zabalgune, 3 de mayo de 2016

Ante todo, quiero expresar, en nombre del Gobierno Vasco, mi satisfacción por el hecho de que presentemos, hoy y aquí, el 7º tomo de Herri Hizkeraren Atlasa, juntamente con la exposición “Euskara Ibiltaria”, basada en dicha obra.

Deseo poner de relieve y agradecer la labor que Euskaltzaindia está desarrollando para, además de recopilar y estudiar el habla popular, dar a conocer tal patrimonio. Poner a disposición del público el fruto de ese trabajo de recopilación e investigación es una excelente labor, digna de encomio. La puesta a disposición de la ciudadanía se realiza, además de a través de las correspondientes publicaciones, también por medio de internet, así como de la citada exposición.

Precisamente este atlas del habla popular nos brinda una oportunidad inmejorable para sumergirnos y profundizar en la inagotable capacidad expresiva del euskera y en las diversas variantes orales que emplean los hablantes.

Nuestro objetivo es que el euskera vivo, cada vez más utilizado, sea un instrumento cada vez más útil para satisfacer las necesidades comunicativas de sus hablantes. Axular y Mitxelena, nuestros grandes referentes, expresaron acertadamente la receta para el uso del euskera y para que el euskera sea un instrumento apto para ese uso: Axular subrayó la importancia del uso diciendo que “piedra que rueda no cría musgo”, y Mitxelena puso de relieve el valor de contar con una “herramienta **afilada** para hablar entre nosotros”. En ese camino, es fundamental que el tesoro de las hablas populares sea convenientemente investigado, recogido y difundido.

La obra señera de Euskaltzaindia es, sin duda, su labor de guía en la construcción y desarrollo del euskera unificado. Sin euskera unificado no habría sido posible la gran extensión y avance del euskera en las últimas tres décadas.

No ha faltado quien ha tratado de contraponer el euskera unificado y el euskera popular. Es un punto de vista erróneo. Porque la cuestión no es euskera unificado **o** dialectos/hablas populares, sino euskera unificado **y** dialectos/hablas populares. Todo es euskera; cada uno de ellos, en el espacio que le corresponda.

Debemos hacer sitio al euskera, no únicamente en la enseñanza, en la universidad, en la administración o en los medios de comunicación; además de en todos esos ámbitos, también en nuestra vivencias más íntimas, en los entornos informales. Para ello, necesitamos un euskera vivo, muy expresivo, lleno de chispa, y las hablas populares son un inmejorable manantial para todo ello. Pero incurriríamos en un error si las opusiéramos al euskera unificado, como si este fuera intrínseca y forzosamente reseco y, por el contrario, las hablas populares fueran necesariamente chispeantes.

El euskera unificado ha fortalecido la comunidad de vascohablantes, ha facilitado y posibilitado la comunicación entre hablantes de unos y otros dialectos, ha adaptado el euskera a las necesidades de la sociedad moderna. No existe en el mundo idioma normalizado y fuerte que no cuente con un estándar.

Creo que la de hoy es una buena oportunidad para poner de manifiesto con toda claridad que el euskera unificado y el euskera popular no son realidades contrapuestas, sino dos caras de la misma realidad que se alimentan mutuamente. El euskera unificado necesita del habla popular. Y para que el euskera sea una lengua viva y normalizada, necesitamos del euskera unificado.

En consecuencia, felicito a Euskaltzaindia y al equipo de trabajo del Atlas. Estamos satisfechos de la colaboración que mantenemos. En el proyecto del atlas de las hablas populares del euskera, Euskaltzaindia ha tenido a su lado al Gobierno Vasco y a los poderes públicos desde el momento en que se puso en marcha, allá por los años 1983-1984. Porque el

esfuerzo por preservar las hablas populares lo merecía. La colaboración entre el Gobierno Vasco, las diputaciones forales y Euskaltzaindia es de gran importancia, y acabamos de renovar, para el período que va desde 2015 hasta 2018, el contrato-programa que regula dicha colaboración, en el cual se incluye el proyecto del Atlas. En el presente ejercicio, el Gobierno Vasco aportará 1.250.000 euros. Y estamos satisfechos de tal aportación, puesto que no se trata de un gasto, sino de una inversión. Por eso habéis tenido y tendréis al Gobierno Vasco a vuestro lado. Muchas gracias.

Patxi Baztarrika Galparsoro, vicesconsejero de Política Lingüística del Gobierno Vasco